

Erf: ELA errekurtsua RPT 2017
Espediente zk.: 2017/04

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

ELA sindikatuak, 2017. Urteko Lanpostuen Zerrenden aurka aurkeztutako Birjarpen errekurtsua.

Nork eskatu dauen txostena

Langileria sailak.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2017ko martxoaren 8an, udal Osoko Bilkureak, besteak beste, Bermeoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2017. urterako Lanpostuen Zerrendeak onartu ebazan.

Bigarrena: 2017ko maiatzaren 4an, ELA sindikatuak, aitatutako erabagien aurkako Birjarpen Errekurtsua aurkeztu eban.

b) Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Aipatutako errekurtsuan, lehenik eta behin adierazoten da egiturakoak diran lanpostu guztiak jaso behar dirala Lanpostuen zerrendatan eta, negoziazio mahaian egindako batzarren ondorioz, argi ikusten da definituta dagozan egiturako lanpostu beharrian guztiak dagozala jasota, etorkizunean egiturako beharrian barriak definitzearen kalte barik

Bigarrena: Lanpostuen balorazioari jagokonez, Udalak martxan dauka balorazio prozesua eta balorazio lan taldea be eratuta dauka, lanean dagoena 2014ko azaroaren 6tik aurrera.

Hirugarrena: Bosgarren atalean aitutzen da 4 lanpostu dagozala lan itunpeko harremanagaz funtzionario izaera eduki behar leukeenean.

Horren ganean, Euskal Funtzio Publikoko 6/1989 legeko 19. artikuluan honakoa xedatzen da:

“1.- Euskal Administrazio Publikoetako lanpostuak funtzionarioek beteko dituzte eskuarki.

2.- Lan-itunpeko langile finkoentzat honako hauek bakarrik gorde ahal izango dira:

- a) Egitekorik nagusia ofizio batetan jardutea duten lanpostuak, eskuzko teknikak erabiltzea batez ere beharrezko izan eta horiek betetzeko ikasketa-titulaziorik behar ez dezanekoan,
- b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailaren menpeko ez diren irakaskuntza edo gaikuntza-zentruetako irakaskuntza-lanpostuak,
- c) Eraikuntzei, tresneriei eta antolapideei bere onean eusteko eta iraunarazteko alorrei, arte grafikoei eta inkestei dagozkien tresnerietako lanpostuak, horien egitekorik nagusia zerbitzuek jarduteko beharrezko den azpegiturari berari eustea edo erabakiak hartzeko beharrezko diren azterlanak ahalbideratzeko datu objetiboak eskaintzea bait da,
- d) Izaera bereziko lanpostuak, horietan jarduteak heziketa akademiko zehatzik behar ez duenean, eta egon dauden Kidego edo Eskaletako langileek bete ezin dituztenean eta izan duten edukia dela eta Kidego edo Eskala berriak sortzea aholkagarri egin ez dezaten,
- e) Kudeaketako organu berezietan, foru eta tokiko Erakunde Burujabeei eta Autonomia Elkarteko Administrazioaren merkataritzako Erakunde Burujabeei atxikitako lanpostuak, menpeko diren Administrazioaren aldetiko agintaritzak, nahitaezko lege-aholkularitza, herri-sendesmena, ikuskaketa, zaingoa edo ekonomi eta dirubide-kudeaketaren arakaketa dakartenak salbuetsiz, horrelakoetan funtzionarioentzat gordeko bait dira, eta.
- f) Administrazio edo laguntza-egitekoak dituzten atzerriko lanpostuak.
- g) Duten izaera eta horiei atxikita dauden organu edo unitateek bete dezaten zerbitzuaren zernolakoak kontutan izanik, Eusko Legebiltzarraren legez finka daitezen lanpostuak”.

Beraz, artikuluko horretatik ondorioztatzen denez, lan itunpeko harremanak salbuespenekoak dira eta, arrunta lanpostuak funtzionarioei gordetakoak izatea.

Hori dala eta, alegazio hau onartzea proposatzen da eta, ondorioz, beharrezkoak diran egokitzapenak egitea.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko ekainaren 9an.

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria